

GASTEIZKO ALDE ZAHARREKO ARTE ETA LANDAREDI LEHIAKETAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

2025



Centro
de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro
Gaietarako Ikastegia

Edukia

1. HELBURUA.....	2
2. HARTZAILEAK.....	2
3. EKINTZA ESPARRUAK ETA PROIEKTU MOTAK	3
4. BETEKIZUNAK	4
5. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK	4
6. ESKABIDEAK AURKEZTEA.....	6
7. SARIAK.....	7
8. EPAIMAHAIA ETA PUNTUAZIO-IRIZPIDEAK	8
9. SARITUTAKO PERTSONEN BETEBEHARRAK	9
10. EGINDAKO PROIEKTUAREN BALORAZIOA	10
11. SARIA ORDAINTZEA	11
12. ERANSKINA.....	11

1. HELBURUA

Lehiaketa Gasteizko Udalak eta Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak (CEA) bultzatutako **LANDU ALDE ZAHAR BERDE, BIZI ETA AUZOTARRA** programaren barruan kokatzen da. Programa hau Gasteizko Alde Zaharra (aurrerantzean, Erdi Aroko Hirigunea) herritarrekiko partaidetza-prozesu batetik sortu da, herritarren kosorkuntza eta auzoaren naturalizazioa sustatzeko helburuarekin. Horrekin, Erdi Aroko Hirigunea espazio ederrago, osasungarriago eta kohesionatuago bihurtu nahi da: bihotz berdeagoa, biziagoa eta auzotarragoa.

Zehazki, lehiaketa honek helburu hauek ditu:

- Ingurunea bisualki aberastea, landaredia eta artea integratuz.
- Adierazpen artistikorako espazio kolaboratibo bat eskaintzea, agente sortzaileen eta auzokideen arteko elkarlana sustatuz.

Helburu espezifikoak:

1. Profil desberdinetako pertsona sortzaileen artean ekimen kolektiboak sustatzea, gazteei arreta berezia eskainiz. Talde-lana bultzatu nahi da, eta garapen pertsonala eta prestakuntza-garapena bultzatu, hiri-ingurunean landaredia eta artea txertatuz.
2. Erdi Aroko Hiriguneko espazio publikoan landarediaren presentzia handitzeko aukerak ikusaraztea, esku-hartze txiki baina esanguratsuen bidez.
3. Udalerriko artisten eta egoiliarren arteko lankidetzaproiektuak sustatzea, batez ere Erdi Aroko Hirigunekoak, bi aldean artean sinergiak sortzen dituztenak.

2. HARTZAILEAK

Lehiaketak partaidetzarako bi kategoria ezartzen ditu:

a) Kategoria irekia

Artearen, diseinuaren, lorezaintzaren, paisajismoaren edo antzekoen adarrei lotutako pertsona sortzaileei zuzenduta dago, ikasleak, profesionalak, elkarteak edo esparru horiekin lotutako edozein erakunde juridiko izan. Ideiak banaka edo taldean aurkeztu ahal izango dira, betiere egokiak badira, lehiaketaren helburuekin bat badatoz eta hautemandako beharrei erantzuten badiete.

b) Gazte kategoria

Artearen, diseinuaren, lorezaintzaren, paisajismoaren edo antzekoen adarrei lotutako pertsona fisiko gazte eta sortzaileentzat. Kategoria honek gazteen talentu sortzailea nabarmendu eta sustatu nahi du, gutxienez hiru sarietako bat kategoria horretako proiektu bati esleituko zaiola ziurtatuz.

- Proiektua banaka aurkezten bada, proposatzaileak 18 eta 30 urte bitartean izan beharko ditu.
- Proiektua taldean aurkezten bada, ezingo da 30 urtetik gorako pertsonarik egon.
- Elkarreek eta nortasun juridikoa duten gainerako erakundeek ezin izango dute parte hartu gazte-kategorian; bai, ordea, kategoria irekian.

Bi kategorietarako, proiektua talde edo elkarte batek aurkezten badu, gutxienez kideetako batek frogatu beharko du ikasten ari dela, ikasketak dituela edo esperientzia duela artearen, diseinuaren, lorezaintzaren, paisajismoaren edo antzekoen adarretako batean.

3. EKINTZA ESPARRUAK ETA PROIEKTU MOTAK

Kokalekuak. Proiektuak Erdi Aroko Hirigunearen barruan dauden eta erantsitako deskribapen-fitxetan zehazten diren hiru kokapenetan soilik garatu beharko dira, honako hauek barne:

- Kokalekuaren helburu espezifikoak.
 - Esku-hartzeko azalera erabilgarriaren planoak.
 - Diseinurako eta exekuziorako kontuan hartu beharreko gogoetak eta elementuak.
- 1) **Eranskina - Buruileria plaza:** Alboko hormatxoak eta/edo argiak bezalako elementuak integratzen dituzten proiektuak lehenetsiko dira. Esku-hartzeek pasabide librea, zirkulazioa eta plazako egonaldia bermatu beharko dituzte.
 - 2) **Eranskina - Santa Maria kalea,** Montehermoso Kulturuneko atzeraemangunea.
 - 3) **Eranskina - Eskola kalea 8, Biltegi Zaharra atzeraemangunea:** Atzeraemangunean eta Biltegi Zaharrerako sarbidea, aparkalekuaren ingurua eta alboko hormatxoa barne.

Esku-hartzeen tipologia. Proiektuak artea eta landaredia barne hartzen dituzten hainbat motatakoak izan daitezke:

- Loreontzien diseinua eta instalazioa, lurzorua mailan edo hiri-altzarien gainean.

- Landaredia integratzeko egitura bertikalak sortzea.
- Ingurunearen naturalizazioa sustatzen duten elementuak sartzea.
- Material naturalak edo landaredia duten materialak erabiliz, eskultura edo instalazio interaktiboak sortzea.
- Faunarentzako babeslekuak integratzen dituzten proiektuak, hiri-biodibertsitatea sustatuz.
- Artea eta landare-esku-hartzea proiektu berean uztartzen dituzten ekimenak, bi elementuen integrazio sortzailea eta funtzionala sustatuz.
- edo beste batzuk...

4. BETEKIZUNAK

Proiektuak deialdian onartzeko, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) **Jarduera-eremua.** Proiektuak erantsitako fitxetan deskribatutako kokapenetan soilik garatu beharko dira, fitxa horietan ezarritako segurtasun eta irisgarritasun baldintza guztiak betez.
- b) **Izaera iragankorra.** Esku-hartzeek ezingo dute zoladuretan edo hormetan zulaketarik egin, ezta dauden elementu fisikoetan eraldaketa iraunkorrik eragin ere. Egitura autosostengatzaileak erabili ahal izango dira instalazioaren itzulgarritasuna bermatzeko eta horien segurtasuna frogatzeko.
- c) **Gauzatzea, mantentzea eta desmuntaia.** Irabazlearen ardura izango da. Instalazioaren hasieran, mantentze-hitzarmena ezarriko da CEArekin, obra ikusgai dagoen bitartean gerta daitezkeen kontingentziei erantzuteko, egoera ezin hobean egon dadin.
- d) **Instalazioaren iraupena.** Esku-hartzeak bi astez egongo dira instalaturik.
- e) **Baimenak.** Erakundeak bere gain hartuko du proiektuak gauatzeko beharrezkoak diren baimenen kudeaketa eta eskaera.
- f) **Baldintza klimatikoak.** Gauzatzea klima-aurreikuspena egokitu beharko da. Eguraldi txarra egiten badu, lehiaketaren antolaketa arduratuko da kronograman beharrezkoa den edozein doikuntza jakinarazteaz.

5. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Proiektu bakoitzeko honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

1) Formularioa

1. Proiektuaren leloa

2. Adierazi kategoria irekia edo gaztea aukeratzen den.
3. Proiektuaren ordezkariaren identifikazio eta harremanerako datuak (izena, abizenak eta NAN, posta elektronikoa eta telefono mugikorra), eta, halakorik balego, artearen, diseinuaren, lorezaintzaren edo antzekoen adarrekiko lotura mota.
4. Kideak identifikatzeko datuak (taldea edo elkarte bada) (izena, abizenak eta NAN), eta arte, diseinu, lorezaintza edo antzeko adarrekiko lotura mota, halakorik badago.
5. Loturarik izanez gero, adierazi Gasteizko Erdi Aroko Hirigunearekiko lotura mota.
6. Proiektua irabazle suertatuz gero, diru-sarrera egiteko banku-kontuaren zenbakia (banku-kontuaren titularraren izena eta IBANa).
7. Formularioan jasotako datuak zuzenak direla dioen erantzukizunpeko adierazpena.
8. Erantzukizunpeko adierazpena, zeinetan saritutako parte-hartzaileek konpromezua hartuko baitute ordaindutako zenbatekoak itzultzeko, baldin eta, berari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, proiektua gauzatzen ez badute.

2) Proiektuaren txostena

Bi kategorietarako dokumentu bakarra, A4 tamainako SEI (6) orrialdeko edo A3 tamainako HIRU (3) orrialdeko gehienezkoa. Atal hauek izan beharko ditu:

0. Proiektuaren leloa

1. Proiektuaren ideiaaren deskribapena

- Esku-hartzearen laburpen kontzeptuala (200 hitz gehienez).

2. Irudiak eta eskemak

- Honako hauek biltzen dituzten irudikapen grafikoak:
 - Esku-hartzearen kokapen zehatza zehaztutako espazioaren barruan.
 - Proiektuan integratutako elementuak.
 - Dimentsioak, material nagusiak eta xehetasun tekniko garrantzitsuak zehaztea.

3. Muntaia eta desmuntaia

- Muntatzeko eta desmuntatzeko prozesuaren deskribapena nahitaezkoa izango da:
 - Beharrezko giza baliabideak, tresnak eta materialak.
 - Fase bakoitzerako zenbatetsitako denborak.

4. Biztanleriarekiko jarduerak edo instalazioaren gaitasun interaktiboa (hala badagokio)

- Proposatzen den edozein partaidetza jardueraren xehetasuna, edo esku-hartzearen elementu interaktiboena eta funtzionaltasunarena.

5. Proiektua komunikatzeko eta zabaltzeko jarduerak. Talde edo pertsona parte-hartzaileak jarduera zabaltzen nola lagundu proposatu ahal izango du, honako hauek barne:

- Sare sozialen, komunikabideen edo Erdi Aroko Hiriguneko ekitaldien bidezko esku-hartzea ikusarazteko ideiak.

Komunitatea proiektuaren edo, oro har, programaren sustapenean inplikatzeko ekintzak.

6. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Aurkezteko epea

Proiektuak 2025eko apirilaren 21era arte aurkeztu ahal izango dira.

Aurkezteko lekua eta modua

Eskatutako dokumentazioa (inprimakia eta memoria pdf formatuan) honela aurkeztu ahal izango da:

- Online, Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez.
- Aurrez aurre, Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegian, Zulueta Jauregian, Senda pasealekuko 2. zenbakian, 01007, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:00etara (jaiegunetan izan ezik).

Proiektuarekin zerikusia duten gaiak babestea

Lehiaketa argitaratzen den egunetik proiektuak aurkezteko epea amaitu baino bost egun lehenago arte, cea@vitoria-gasteiz.org helbide elektronikoa jarriko da, pertsona, talde edo erakunde lehiakideek proiektuaren interpretazioarekin zerikusia duten galderak eta gaiak, oro har, eta oinarri hauek, bereziki, bidali ahal izan ditzaten. Proposamena egin duten pertsonak, taldeak edo erakundeak lehiaketa antolatzeke ardura duten pertsonen laguntza behar badute, aldeztu aurretik hitzordua eskatu ahal izango dute.

7. SARIAK

Guztira 6.000 € erabili ahal izango dira lehiaketarako, Ingurumen Gaietarako Ikastegiaren aurrekontuaren kontura, eta hiru esku-hartze esparruen artean banatuko dira. Sarietako bat, gutxienez, 2 b) puntuak ezartzen den bezala, gazte-kategoriako proiektu bati esleitu beharko zaio.

Saria 2.000 eurokoa izango da proiektu irabazle bakoitzarentzat. Zuzkidura honetan diseinuak, muntaketak, desmuntaketak eta proiektuarekin zerikusia duten gastu guztiak sartzen dira.

Zenbateko hori formularioan emandako kontu korrontean ordainduko da.

Sariak pertsonalak eta transferiezinak izango dira, eta inola ere ezingo dira aldatu edo konpentsatu saritutako pertsona fisiko edo juridikoek hala eskatuz gero.

Onura gehigarriak

Sari ekonomikoaz gain, irabazleek honako hauek jasoko dituzte:

- Udalaren izenean emandako akreditazio ofiziala.
- Egindako ekintzak zabaltzen laguntzea.

Atxikipen fiskalak

Saritutako proiektu bakoitzeko 2.000 euroko zenbateko hori dagokion zerga-atxikipenari lotuta egongo da, indarreko legerian ezarritakoaren arabera, lehiaketetan parte hartzearen ondorioz ematen diren sarietatik lortutako errentei dagokienez, bai pertsona fisikoentzat, bai pertsona juridikoentzat.

Gazte kategoria

Gazte kategoriako proiektu irabazleentzat, sari ekonomikoaz gain, zerbitzu gehigarriak eskainiko dira, hala nola:

- Proiektuaren azken diseinurako aholkularitza pertsonalizatua.
- Proiektua gauzatzeko beharrezko espazioetarako sarbidea.
- Baliabide materialak bilatzen laguntzea.

8. EPAIMAHAIA ETA PUNTUAZIO-IRIZPIDEAK

Epaimahaia

CEA izango da oinarri hauetan ezarritako sariak emateko instrukzio-organoa.

Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

- CEako teknikari bat
- "Landu herrigune berde, bizi eta auzotarra" programa koordinatzen duen enpresako teknikari bat.
- Gazteria Zerbitzuko teknikari bat.
- Espazio Publikoaren Zerbitzuko teknikari bat.
- Arkaute Eskolako irakasle bat.
- Alde Zaharreko kultura-erakunde bateko kide bat.

Puntuazio-irizpideak

Puntuazio-irizpideak komunak izango dira, bai kategoria irekian, bai gazte-kategorian.

Aipatzekoa da, berriz ere, hiru sarietako bat gazte kategoriarako erreserbatuta egongo dela, eta, beraz, proiektu gazterik onena saritua izango da beti. Beste bi sariak bi kategorietako edozeinetakoak izan daitezke, eta hori lortutako puntuazioaren arabera izango da.

Guztira 100 puntu emango dira, honela banatuta:

Irizpide subjektiboak (85 puntu)

1. Ideia lehiaketaren helburuetan oinarrituta formulatzea: proposamena aukeratutako espaziora egokitzea, diseinuen kalitatea eta landare-espezieen hautaketa baloratuko dira, baita haien balio artistikoa, estetikoa eta konposiziozkoa, ingurunean duten eragina eta berdintasun-irizpideak sartzea ere.

2. Originaltasuna eta izaera berritzailea: proiektua sortzailea izatea eta artea eta landaredia integratzea baloratuko da, bai edukiari bai metodologiari dagokienez.
3. Instalazioak Hirigunean bizi diren pertsonen eta, oro har, herritarren interakzioa edo parte-hartzea ahalbidetzen du.
4. Proiektuaren bideragarritasuna: kokaleku bakoitzaren betekizunetara egokitzen den ebaluatuko da, baita obrak dirauen bitartean mantentzeko bermeak ere.
5. "Landu Hirigune Berde, Bizi eta Auzokoa" lehiaketaren eta programaren komunikazioan eta hedapenean parte hartzeko konpromezua eta proposamena.

Irizpide objektiboak (15 puntu)

6. Talde batek aurkeztutako proiektua. Banakako proiektua bada, atal honek ez du puntuaziorik izango (gehienez 10 puntu).
7. Hirigunean bizi den pertsona bat edo hirigunean lan egiten duen erakunde edo elkarte bat taldean integratzea (5 puntu).

Beste gogoeta batzuk

Proiektua saritua izateko, gutxienez 60 puntu lortu beharko dira.

Oro har, pertsona, talde edo elkarte bera saritu ahal izango da hiru sarietako batekin (kokapen bakarra). Hala ere, pertsona, talde edo elkarte hori bera beste lekuren batean irabazle suertatzen bada eta aurkeztutako proiektuek eskatutako gutxieneko puntuazioa gainditzen ez badute, saritua izan daiteke.

Nolanahi ere, proiektuak aurkeztu dituzten pertsonen edo elkarten anonimotasuna bermatuko da, eta, beraz, proposamenak baloratzeko ardura duen epaimahaiak aurkeztutako memoriak baino ez ditu jasoko, identifikazio-datuak jasotzen dituen formulariorako sarbiderik gabe.

9. SARITUTAKO PERTSONEN BETEBEHARRAK

Saritutako pertsonen, taldeen edo erakundeen betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Saria jaso duen proiektua gauzatzearen ondoriozko erantzukizun material eta formal guztiak bere gain hartzea (CEArekin sinatutako mantentze-hitzarmena betetzea barne).
- b) Proiektua ez aldatzea lehiaketa antolatzeko aldez aurreko baimenik gabe.

- c) Sarituak izan diren eta konpromezua hartu duten proiektua gauzatzea. Saria emateko erabili zen proiektua gauzatzen ez bada, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, zuzenbidean ezarritakoaren arabera.
- d) CEAk egokitzen jotzen dituen egiaztapen eta jarraipen-ekintzak onartzea, bai eta erakunde horrek eman ditzakeen ohar gehigarri ere.
- e) Jarduera Gasteizko Udalaren eta Ingurugiro Galetarako Ikastegiaren lankidetzarekin egiten dela onartzea. Horretarako, "Landu alde zahar berde, bizi eta auzotarra" logotipoa sartu beharko da proiektua zabaltzeko erabilitako komunikazio-euskarri guztietan, bai deialdi honetan, bai etorkizunean egingo diren jardueretan. Sare sozialetan, #cascoberdeaVG hashtag-a sartu beharko da.
- f) Saritutako proiektuen aurkezpenean parte hartzea, "Herriarren Pasealekua: Herrigune Berdea, Bizi eta Auzokoa" hedapen-jardueraren barruan.
- g) Sexuari, jatorriari, arrazari, erlijioari eta abarri dagokienez diskriminaziorik ez egitea, bai hizkuntzan, bai proiektu, programa edo jarduerari lotutako publizitatearen eta komunikazioaren irudian.
- h) Euskararen erabilera normalizatzeko irizpideak betetzea proiektu, programa edo jarduerarekin lotutako publizitate eta komunikazio guztietan. Hau da, argitalpen eta komunikazio guztiek elebidunak izan behar dute.

Nolanahi ere, deialditik kanpo geratuko dira:

- Adierazitako dokumentazioa ezarritako epeetan aurkezten ez duten pertsona, talde eta elkarte parte-hartzaileak. Formularioko eta memoria teknikoko atal guztiak bete behar dira bereziki.
- Oinarri hauetan azaldutako baldintzaren bat betetzen ez duten pertsona, talde eta elkarte parte-hartzaileak.

10. EGINDAKO PROIEKTUAREN BALORAZIOA

Saria emateko proiektua amaitu ondoren, pertsona, talde edo erakunde sarituek balorazio-laburpen bat bidali beharko diote lehiaketako antolakuntzari, gehienez ere 200 hitzekoa, emaitza positiboak, arazoak edo aurrez aurreko zailtasunak eta muntaiaren eta instalazioaren argazki-bilduma barne.

Lehiaketara aurkeztutako argazkiak sustapenerako eta publizitaterako erabili ahal izango dituzte antolatzaileek, bitarteko inprimatuetan zein digitaletan. Nolanahi ere, irudiak erabiltzen badira, egilearen izena aipatuko da.

11. SARIA ORDAINTZEA

Proiektu irabazleek 2.000 euro jasoko dituzte epaia argitaratu ondoren.

12. ERANSKINA

Izena emateko formularioa

GASTEIZKO ALDE ZAHARREKO ARTE ETA LANDAREDI LEHIAKETAN (2025) IZENA EMATEA

Proiektuaren leloa

Kategoria

☐

Irekia

☐

Gaztea

Proiektuaren ordezkariaren identifikazio datuak

<i>Izena</i>	<i>Abizenak</i>	<i>NAN</i>
<i>Posta elektronikoa</i>		<i>Telefono mugikorra</i>
<i>Artearen, diseinuaren, lorezaintzaren edo antzekoen adarrekiko lotura mota, halakorik balego</i>		

Taldean parte hartzen dutenen identifikazio datuak (taldea edo elkarte bada)

<i>Izena</i>	<i>Abizenak</i>	<i>NAN</i>
<i>Artearen, diseinuaren, lorezaintzaren edo antzekoen adarrekiko lotura mota, halakorik balego</i>		
<i>Izena</i>	<i>Abizenak</i>	<i>NAN</i>
<i>Artearen, diseinuaren, lorezaintzaren edo antzekoen adarrekiko lotura mota, halakorik balego</i>		
<i>Izena</i>	<i>Abizenak</i>	<i>NAN</i>



<i>Artearen, diseinuaren, lorezaintzaren edo antzekoen adarrekiko lotura mota, halakorik balego</i>		
<i>Izena</i>	<i>Abizenak</i>	<i>NAN</i>
<i>Artearen, diseinuaren, lorezaintzaren edo antzekoen adarrekiko lotura mota, halakorik balego</i>		
<i>Izena</i>	<i>Abizenak</i>	<i>NAN</i>
<i>Artearen, diseinuaren, lorezaintzaren edo antzekoen adarrekiko lotura mota, halakorik balego</i>		
<i>Izena</i>	<i>Abizenak</i>	<i>NAN</i>
<i>Artearen, diseinuaren, lorezaintzaren edo antzekoen adarrekiko lotura mota, halakorik balego</i>		

Gasteizko Erdi Aroko Hirigunearekiko lotura, halakorik balego

Adierazi pertsonen izen-abizenak eta lotura mota

--

Proiektua irabazle suertatuz gero, diru-sarrera egiteko banku-kontuaren zenbakia

<i>Banku-kontuaren titularra</i>	<i>IBANa</i>



Erantzukizunpeko adierazpenak

Erantzukizunpeko adierazpenen bi laukitxoak markatzea nahitaezko baldintza da aurkeztutako proiektua onartzeko

☐

Inprimaki hau sinatzen duen pertsonak bere erantzukizunpean adierazten du bertan emandako datu eta informazio guztiak egiazkoak direla. Akatsik edo faltsukeriarik antzeman ez gero, horren ondorioak onartzeko konpromezua hartzen dut.

☐

Inprimaki hau sinatzen duen pertsonak konpromezua hartzen du ordaindutako zenbatekoak itzultzeko, baldin eta proiektua gauzatzen ez bada saritutako proiektua egiteko ardura duen pertsona fisikoari, taldeari edo elkarteari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik. Horretarako, inprimaki hau sinatzen duen pertsonak jasotako zenbateko guztiak itzuli beharko ditu, aplikatzekoa den araudiaren arabera eta deialdian ezarritako baldintzen arabera.

Sinaduraren data

Sinadura



DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Tratamenduaren arduraduna	Vitoria-Gasteizko Udala (IFK: P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak	Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Araba 945 161 616 - informacion@vitoria-gasteiz.org - www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak	cea@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak	Udal zerbitzuei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, eta udal-eskumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekin bat etorrira.
Gordetzeko epeak	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Orobat, gordeko dira interesdunarekiko harremanetatik sortzen diren erreklamazioak bideratu nahiz halakoetan defendatzeko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Era berean, artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie.
Legitimazioa	39/2015 Legearen 21.1 artikulua: Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua. DBAOko 6.1.c) artikulua: Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbearra betetzeko.
Hartzaileak	Datu pertsonalik ez zaie lagako hirugarrenei.
Derechos	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, interesdunak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu.



Eranskinak

1. Burulleria plaza

**2. Santa Maria kalea,
Montehermoso Kulturuneko
atzeraemangunea**

**3. Eskola kaleko 8. zenbakia,
Gordailu Zaharra atzeraematea**


Anexos

1. Plaza Burullería

**2. C/ Santa María, retranqueo
Centro Cultural Montehermoso**

**3. C/ Las Escuelas nº8, retranqueo
Antiguo Depósito**

1. Buruileria plaza
1. Plaza Burullería





Azalera Superficie

585 m²

Deskribapena

Buruileria plaza Erdi Aroko nekropoli zahar baten gainean dago, eta Gasteizko bilakaera historikoaren lekuko bizia da. Bere izenak, oihal lodiak, zakuak eta zapiak ehuntzeko antzinako lanbidetik heredatua, hiriaren artisau-nortasuna gogorarazten du. Gaur egungo egitura XX. mendearen amaierakoa bada ere, definitzen duen ingurunea Erdi Arokoa da erabat, eta mugarri arkitektonikoak ditu, hala nola, Portalón, Hurtado de Andatarren dorrea, Gobeo-Gebaratarren arma-etxea eta Santa Maria katedral bikaina.

Espazio horrek iraganaren aztarna eta iraganerako eta bilerarako gune gisa duen funtzioa uztartzen ditu, eta eszenatoki ezin hobea eskaintzen du esku-hartze iragankorretarako, artearen eta naturaren bidez ondare-balioa nabarmenduko dutenak eta, aldi berean, egonleku eta topaleku gisa erabilera publikoa sustatuko dutenak.

Descripción

La Plaza Burullería, asentada sobre una antigua necrópolis medieval, es un testimonio vivo de la evolución histórica de Vitoria-Gasteiz. Su nombre, heredado del antiguo oficio de tejer telas bastas, sacos y paños, evoca la identidad artesanal de la ciudad. Aunque su configuración actual data de finales del siglo XX, el entorno que la define es netamente medieval, con hitos arquitectónicos como El Portalón, la Torre de los Hurtado de Anda, la Casa Armera de los Gobeo-Gebara y la majestuosa Catedral de Santa María.

Este espacio, que combina la huella del pasado con su función como punto de tránsito y reunión, ofrece un escenario ideal para intervenciones efímeras que resalten su valor patrimonial a través del arte y la naturaleza, al mismo tiempo que fomenten su uso público como lugar de estancia y encuentro.

Kontuan hartu beharrekoak:


- Eraikitako elementuak, hala nola hormak eta zoladura, ezin izango dira fisikoki esku hartu, ezta margotu edo zulatu ere.
- Farolak eta hormatxoak esku-hartzeetarako euskarri izan daitezke, betiere haien osotasun fisikoa arriskuan jartzen ez bada.

Consideraciones:

- Los elementos contruidos, como muros y pavimento, no podrán ser intervenidos físicamente, ni pintados ni perforados.
- Las farolas y muretes podrán servir de soporte para intervenciones, siempre que su integridad física no se vea comprometida.

2. C/ Santa María, retranqueo Centro Cultural

2. Santa Maria kalea, Montehermoso Kulturune



Montehermoso

ko atzeraemangunea



Azalera

Superficie

68 m2

Deskribapena

Espazio hori Montehermoso zentroaren atzeko fatxadaren atzeraemangune gisa eratzen da, eta Santa Maria kalean, biltegi zaharraren aurrean, eremu hibrido bat sortzen da, eraikinaren zerbitzu-sarbidea eta iragarki-taula konbinatzen dituen. Gehienak hutsik geratzen dira.

Hala ere, balio handiena du bideak zabaltzen dituelako, ondare-fatxada baten ikuspegi nabarmena eskaintzen duelako eta gaur egun alferrik galtzen ari den espazio potentziala sortzen duelako.

Gaur egun, espazio horrek ez du hiri-altzaririk; beraz, landareta eta ekipamendu egokiko esku-hartze iragankor batek, bere funtzionaltasuna hobetzeaz gain, hiriaren Erdi Aroko testuinguruan duen garrantzia ere balioetsiko luke.

Descripción

Este espacio se configura como un retranqueo de la fachada trasera del Centro Montehermoso, generando, en la calle Santa María, frente al antiguo depósito, un área híbrida que combina un acceso de servicio del edificio con la presencia de un tablón de anuncios, quedando en su mayor parte vacante.

Sin embargo, su mayor valor radica en que proporciona un ensanchamiento del viario, ofreciendo una vista destacada de una fachada patrimonial y generando un potencial espacio actualmente desaprovechado.

Actualmente, este espacio carece de mobiliario urbano, por lo que una intervención efímera con vegetación y equipamiento adecuado no solo mejoraría su funcionalidad, sino que también pondría en valor su importancia dentro del contexto medieval de la ciudad.

Kontuan hartu beharrekoak:


- Eraikitako elementuak, hala nola hormak eta zoladura, ezin izango dira fisikoki esku hartu, ezta margotu edo zulatu ere.
- Zerbitzuko ateko sarbidea errespetatu beharko da.
- Iragarki-taulak esku-hartze iragankorrean ikusgai eta/edo integratuta egon beharko du.
- Bolardoak euskarri gisa erabili edo esku-hartzean integratu ahal izango dira, betiere haien osotasun fisikoa bermatzen bada.

Consideraciones:

- Los elementos contruidos, como muros y pavimento, no podrán ser intervenidos físicamente, ni pintados ni perforados.
- Deberá respetarse el acceso a la puerta de servicio.
- El tablón de anuncios deberá permanecer visible y/o integrado en la intervención efímera.
- Los bolardos podrán ser utilizados como soporte o integrarse en la intervención, siempre que se garantice su integridad física.

3. Eskola kaleko 8.zenbakia, Gordailu Zaharrare

3. C/ Las Escuelas nº8, retranqueo Antiguo Dep



Arteko atzeraematea

Depósito



Azalera

Superficie

82 m2

Deskribapena

Eskola Kanean sortutako espazioak, biltegi zaharraren erai-kinaren eta kalearen arteko lerrokadura desberdina dela eta hormatxo batek mugatutako txoko bat sortzen du. Txoko horretan hainbat altzari elementu daude, hala nola bizikletentzako aparkaleku bat, a erabilitako arroparen edukiontzi bat, biltegiara sartzeko bolardo bat eta iragarki-panel bat. Elementu horiek, gaur egun, ez dute elkarren arteko elkarrizketa bisualik.

Esku-hartze iragankorraren helburua txoko hori bere paisaia-kalitatea hobetuko duten landarez eta elementuz hornitzea da, biltegiarako sarbidea eta espazio horrek egonleku gisa izan dezakeen funtzioa nabarmenduz.

Descripción

El espacio generado en la Calle de las Escuelas, debido a la diferente alineación del edificio del antiguo depósito con la calle, crea un rincón delimitado por un murete que marca el cambio de cota entre la superficie de aparcamiento y la fachada del depósito hasta su acceso. Este rincón alberga diversos elementos de mobiliario, como un aparcamiento para bicicletas, un contenedor de ropa usada, un bolardo de acceso al depósito y un panel de anuncios. Estos elementos, actualmente, no tienen un diálogo visual entre sí. El objetivo de la intervención efímera es dotar a este rincón de vegetación y elementos que mejoren su calidad paisajística, destacando tanto el acceso al depósito como la potencial función de este espacio como lugar de estancia.

Kontuan hartu beharrekoak:

- Eraikitako elementuak, hala nola hormak eta zoladura, ezin izango dira fisikoki esku hartu, ezta margo-tu edo zulatu ere.
- Biltegiara atera, edukiontzira eta bizikleten aparkalekura sartzeko bi-deak errespetatu beharko dira.
- Aparkalekuko hormatxoa eta bolardoak euskarri gisa erabili edo esku-hartzean integratu ahal izango dira, betiere haien osotasun fisikoa bermatzen bada eta egitura aldatzen ez bada.

Consideraciones:

- Los elementos contruidos, como muros y pavimento, no podrán ser intervenidos físicamente, ni pintados ni perforados.
- Deberá respetarse el acceso a la puerta del depósito, al contenedor y al aparcamiento de bicicletas.
- El murete del aparcamiento y los bolardos podrán ser utilizados como soporte o integrarse en la intervención, siempre que se garantice su integridad física y no se modifique su estructura